



**FORO DE BARRIO**  
**AUZO-EZTABAIDAGUNEA**  
**2018**

**ERRIPAGAÑA, BELOSO, BIDEZAR**

<b>Fecha / Data:</b>	2018/04/17
<b>Hora / Ordua:</b>	18:30
<b>Lugar / Kokalekua:</b>	Elorri ikastetxe publikoa
<b>Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:</b>	Maidier Beloki
<b>Participantes / Parte-hartzaileak:</b>	5 emakume eta 9 gizon
<b>Otros / Bertze batzuk:</b>	
<b>Moderadora / Moderatzailea:</b>	Partaidetzako teknikaria: Floren Luqui Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzuak: Sergio Espinosa eta Elena Esparza

**Apertura / Hasiera**

Floren Luquik Herritarren Partaidetzako Arloko teknikariak ongi etorria eman die bertaratu diren lagunei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik eta jarrera ona izateagatik. Jarraian, azaldu du nola funtzionatuko duen eztabaidaguneak eta zer atal izango dituen.

Ondoren, azaldu du auzo-eztabaidaguneetan herritarren kexek, iradokizunek eta solasaldiek duten administrazio-bidea, eta gai hauek aipatu ditu: aurrekontua edo gerakinak egoteak edo ez egoteak berekin dakarrena, gorabeheren berri emateko herritarren arretarako 010 telefonoa, eta eragin-esparru handiagoko plan eta prozesuak.

Azkenik, Luquiren ondoren, Maidier Beloki auzo-zinegotziak hitza hartu du, eta etorri izana eskertu die bertaratuei, eta, bertzeak bertze, barkamena eskatu du auzotarren zenbait mezu elektronikori ez erantzuteagatik, zenbait informatika-arazoren ondorioz; eta, hala, hasiera eman dio talde-laneko lehenbiziko dinamikari.



**Grupos de Trabajo / Lantaldeak**

Panelak eta auzoko mapak erabiliz, Floren Luquik azaldu du zer dinamika egingo diren eztabaidaguneak iraungo duen bi orduetan. Lehenbiziko dinamikan, eztabaidagunean zer gai lantzeko asmoa zuten adieraziko diete parte-hartzaileei; post-iten bidez jarriko dituzte, eta, ondoren, hiru multzotan sailkatuko. Panelean ageri bezala, bereiziko dira *“interes orokorreko proposamenak”*; *“salaketak”* (baina azpimarratu du hori ez dela horiek jakinarazteko esparru egokia, tentuz aztertzeo gaiak baitira), eta, azkenik, *“gorabeherak”*.

Post-itak irakurri ondoren, zenbait gorabeherak duten xehetasunagatik, eskatu da auzoko mapara eramateko, gometen bidez haien kokapen zehatza jakiteko. Halaber, erran da han islatuta geratu diren gaietako bakoitza azalduko duela gero Mainer Belokik.

Lehenbiziko dinamika horren ondoren, Floren Luquik azaldu die bigarrenaren edukia: post-itetan idatzi beharko dituzte auzoarentzat interesgarri deritzeten hiru gairi buruzko proposamenak. Honako hauek dira: *“Merkataritza”*, *“auzoaren identitatea”* eta *“haurrak eta nerabeak”*.

## **EMAITZAK**

### **AUZOTARREK LEHEN DINAMIKARI EGINDAKO EKARPENAK**

#### **PROPOSAMENAK**

- 1.- Urte anitzean erabili ez diren orube pribatuen lagapena egitea, dauden kalea edo eremua ez deskapitalizatzeko.
- 2.- Villavesen ibilbide berri bat abian jartzea.
- 3.- Zabudun plaza bat egitea zuzkidura-partzela batean.
- 4.- Kiroldegia
- 5.- Osasun-zentroa
- 6.- Ikastetxea




## 7.- Sarrigurengo errepidearen eremuko jarduketa-plana

### GORABEHERAK

- 1.- Oinezkoen pasabidea
- 2.- Sarrigurengo errepideko radarra
- 3.- Belosoko motorrentzako aparkalekua
- 4.- Txakurrei buruzko kartelak, eta loturik joan daitezela
- 5.- Huarte-Iruña errepidearen ondoan agindutako espaloien hirigintza-txukunketa
- 6.- Parkeak eta lorategiak txukuntzea, esku-hartze orokorreko proiektuaren (PIG) zain egon gabe.
- 7.- Berriz jartzea Sarrigurengo errepideko etxe zaharrentzako laguntza-lerro espezifikoak.
- 8.- Aniztasun estetikoak ez ditzala gelditu aurrerapenak.

### SALAKETAK

1. Leoncio Urabayen pasealekuan, arazo bat dago urarekin eta sastrakekin.



Proposatutako hiru gaiak kontuan hartuta, honako hauek dira bertaratuek plazaratutako proposamenak:



### **COMERCIO - MERKATARITZA**

1. Hirigintza-plana: Altuerak, plazak eta parkeak errespetatzea.
2. Bizikletak alokatzeko espazioak sustatzea, hala auzoko bizitza dinamizatzeko.
3. Oinezko polizia gehiago eskatu dute.
4. Zerga murrizketen bidez sustatzea etxabeak, batik bat, Iruñeko aldean.
5. Zergak parekatzea Burlatan eta Eguesibarren.
6. Laguntzak (interes txikiko maileguak, kasu) saltegiak ireki nahi dituztenentzat, eta negozio berrien sorrera kudeatzeko.
7. "Diru sozial" bat sortzea, auzoko edo hurbileko kaleetako (hala nola Mendillorri edo Sarriguren) kontsumoa sustatzeko.
8. Saltegiak gizarte-ekimenekin konektatzea (bestak, kanpainak...). Esku-hartze sozial eta artistikoak sustatzea saltegietako erakusleihoetan.
9. Saltegiak gizarte- eta arte-ekimenetarako erakusketa-toki ere izan daitezen sustatzea.
10. Hutsik dauden orube handiak kudeatzea.
11. Etxabeak dituzten eraikinak aprobeztatzea. Eraikin zaharretako etxabeetan lokalak jar daitezen sustatzea.
12. Saltegi jakin batzuk sustatzea (harategiak).
13. Aisialdirako lekuak sor daitezen sustatzea, hala auzoko bizitza suspertzeko.
14. Haurrentzako espazioak sortzea (zabuak), Erripagaña, Beloso eta Bidezarreko bizitza suspertzeko.

### **INFANCIA Y JUVENTUD – HAURRAK ETA GAZTEAK**

1. Iradoki dute elkargune bat sortzea auzoan (elkartzeko plaza).
2. 0-3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegi publikoa (doakoa edo diru-sarrerara mailaren arabera).
3. Auzotarrek kudeatutako hiri-baratza, Alde Zaharrean egiten ari diren bezala, eta haur eta gazteentzako dinamikak izatea.
4. Udalak laguntzak ematea boluntariorzaren bidez gazteek kudeatuko duten espazio bat egiteko.
5. Belaunaldien arteko jarduerak sustatzea (adibidez, adinekoek beren bizipenak kontatzea).
6. Jarduera laikoak egiteko gazte taldeak antolatzea.
7. Auzoko plataformak berak antola ditzala lantegiak edo programak, Mendillorri Bideberrik egiten duen bezala.




8. Ikastaroak, lantegiak eta Mendillorriko liburutegira sartu ahal izatea asteburuetan.
9. Hurrek eta gazteek diseinatutako auzoen arteko (Beloso, Bidezar, Erripagaina...) besta-esparru edo -egun bat antolatzea.
10. Mendillorriko haurtzaindegirako sarbidea.
11. Pipi can.
12. Burlatako igerilekuetarako sarbidea.
13. Aire zabaleko graffiti-lantegiak.
14. Civivoxa.
15. Ondoko auzoetako aisialdi osasungarrirako sarbidea sustatzea.
16. Kirol-eskolak: Doako matrikula errentaren arabera.
17. Hiri-kanpamentuen eskaintza handitzea (oporraldietan).
18. Mendillorriko oinezkoen pasabidea.
19. Orube pribatuen prekarioko lagapena parkeak egiteko, jolas sinpleekin (harea, baratzak...)
20. Haurrentzako parkeak eraikitzea.
21. Espazio estaliak eraikitzea.
22. Kirol-eremuak eraikitzea (kiroldegia).
23. Osasun-zentroa eraikitzea.
24. Liburutegi bat eta ludoteka bat eraikitzea.
25. CD Ripagainari kirol-instalazioak (Burlatako futbol-zelaia) erabiltzen uztea.
26. Auzoko eremu guztietako espazio publikoak egokitzea auzoko haur eta gazteek erabil ditzaten.
27. Etorkizunean merkataritza-parke bat egitekoa den orubea lorategi gisa egokitzea, auzoko haur eta gazteek erabil dezaten.
28. Ikastetxeak eraikitzea.

### **AUZO-IDENTITATEKO PROIEKTUAK**

1. Hobeki egokitzea plazak, parkeak eta kaleak.
2. Mendillorriko sarbideak hobetzea, hiriari hobeki lotzeko.
3. Ondoko auzo dinamikoak gehitzea edo horietan bizitzea sustatzea, auzoaren identitatea egiten den bitartean.
4. Coworkingerako eremu bat sortzea.



5. Elkartearen jardueretarako laguntza logistikoa, pertsonala eta materiala.
6. Mendi-talde bat sortzea/sustatzea.
7. Mahaiak eta eserlekuak jartzea parke eta plazetan, eta taldeak osa daitezen laguntzeko moduan jartzea.
8. Haurrentzako eskolaz kanpoko ekintzak.
9. Bidegorria auzo osoan.
10. Kultura-taldeak sortzea.
11. Diru gehiago ematea auzo-elkarteari.
12. Mendillorriekin partekatutako igerilekuak eraikitzea auzoan.
13. Helduentzako jarduerak (joskintza, patchwork, musika...).
14. Auzotarrentzako eremu bat eraikitzea Bidezarreko "bunkerrean", Lantegi Eskolarekin lankidetzan.
15. Kirol-jarduerak.
16. Zabuak.
17. Hiri-baratzak.
18. Erraldoien konpartsa.
19. Pipi can eremu guztietan.
20. Denbora-banku bat eta kontsumo-taldea sortzea.
21. Jardunaldi gastronomiko bat antolatzea urtean zehar.
22. Eskaut-taldeak sor daitezen sustatzea, asteroko bilerekin eta jardurekin.
23. Jarduerak antolatzea (yoga, dantzak...) auzoko lokal berrian, tokirik badago.
24. Kanpainak eta jaiak auzoen artean antolatzea, era deszentralizatuan.
25. Kultura-trukerako elkargune laikoak.
26. Ez egitea zailtasunak dituzten pertsonak "oldeka" dakartzan espaziorik (blokeen arteko oreka bilatzea).
27. Auzo osoan, ez dago toldodun espaziorik euria egiten duen egunetarako.



## **DINAMIKEN EMAITZA BATERATZEA**

### **EMAITZEN INGURUKO TALDE-GOGOETA**

Dinamizazio-zerbitzua hasi da bigarren dinamikaren emaitzak bateratuz; aurreko tauletan jaso dira horren puntu nagusiak. Halaber, bertaratuak elkartuta, gogoeta egin dute, eta beren proposamenei buruzko ideia nagusiak bateratu dituzte.

- Auzoaren identitate propioa sentitzeko zailtasuna. Identitate horri dagokionez, hurbilago sentitzen dute Mendillorri.
- Auzoko zuzkidurei dagokienez, gertuko auzoetako (Mendillorri, kasu) baliabideak aprobetxatzearen ideia garatu da.

Batera jarri dute hurbileko auzoen arteko komunikazioa sustatzeko nahia; horretarako, sarbideek mugikortasuna erraztu behar dute.

**El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du**

### **MAIDER BELOKIREN PARTE-HARTZEA: HERRITARREN ESKAEREI ETA EKARPENEI ERANTZUTEA ETA ZEHAZTEA**

Maidar Belokik gogoetarekin bat eginez hasi du bere ekarpena; bat dator gertuko auzoetan dauden baliabideak aprobetxatzearekin, eta ideia bat gehitu du: auzoen arteko jarduera-agenda bateratu bat indartzea. Agenda horren ildotik, aipatu ditu Civivoxen kontratazio berria, horrekin



datorren ordutegiak handitzea, horrela zerbitzu handiagoa emango baitu, eta, udazkeneko agendan islatuko den programazio partizipatiboa.

Aipatu den zuzkiduren gaiari buruz, ekarpen gehiago egin du:

1. Ez dago aurrekontu nahikoa osasun-zentro, Civivox, liburutegi... propioak eraikitzeko, auzoan lau udalerrik bat egitearen ondoriozko konplexutasun administratiboa dela-eta.
2. Antzara eta Mendillorriko Civivoxa herritar guztiei irekita dauden baliabideak dira. Garrantzitsua da dauden baliabideak aprobetxatzea.

Jarraian, Maider Belokik, lehenbiziko dinamikan parte hartu zuten lagunek egindako proposamenei erantzuteko, honako puntu hauei heldu zien:

- Sarrigurengo errepidean oinezkoen pasabidea eta radarra jartzeko eskaerari dagokionez, erran du Herritarren Segurtasunari informazioa eskatu diola, eta ezetz erantzun diotela, edukiera handiko errepidea izateko araudia betetzen baitu. Radarrari dagokionez, uste du kostu handikoa dela, eta ez dela lehentasunezkoa. Bertaratuak ados ez zeudenez, Belokik aipatu du aukera dagoela hurrengo auzo-erabakidagunera Herritarren Segurtasuneko teknikari bat etortzeko, gaia lantzeko.
- Lotu gabe dabilzan txakurrei dagokionez, adierazi du udaltzaingoak jakinarazi diola abisuak egon direla, eta nabarmendu du horixe dela bidea arazoa konpontzeko.
- Foruzaingoaren instalazioei dagokionez, bertaratuetakoz batzuek zinegotziari galdetu diote prentsan agertu diren informazioei buruz; horien arabera, Foruzaingoa bertze kokaleku batera eramango da, eta orubean etxebizitza familiabakarrak eraikiko dituzte agian. Ez daude ados ideia horrekin, eta auzotarrentzako espazio komun gehiago eskatu dituzte.

Maider Belokik erran du ez duela gaiari buruzko informaziorik baina informazioa bilatuko duela eta erantzungo duela horretaz.

- Merkataritza-gunea eraikitzeko den orubeari buruz, erran du oraingoz geldirik dagoela prozesua.
- Belokik eta Bidezarreko obrekin zuzeneko lotura duten auzotarrek azaldu dute zer egoeratan dagoen 2009an Estatuko E planarekin hasitako prozesu hura. Zinegotziak erran du laguntzen deialdiak finantzaketaren % 100 hartzen duela barne, eta Lezkairuko etxe zaharrek izandako prozesu berari jarraituko zaiola. Berriz adierazi du dena abian eta konpontzeko bidean dagoela, baina ulertzen duela auzotarrak gustura ez egotea prozesua hain motel joategatik. Eremu berari dagozkionez, aipatu da Sarrigurengo errepidean dauden egon daitekeen konponbide bat, eta Maider Belokik adierazi du auzoa bisitatzera joango dela dagozkion teknikariek, arazoari konponbide bat bilatzeko.
- Hiri-autobusen garraioari dagokionez, zinegotziak erran du hurrengo auzo-kontseiluan mankomunitatearen ordezkari bat ere egongo dela eta landuko dela 20. eta 23. lineen ibilbidea aldatzeko aukera, auzoari zerbitzu hobea emateko.
- Iruñeari dagokion auzoko partean dauden zabu bakarrei dagokionez, erran du programatutako bisitan aztertuko dutela jolaslekua handitzea, eta agian adin-tarte handiagoko haurrentzako espazioak ere prestatuko direla. Belokik adierazi du udalak aurrekontu-partida bat duela helburu horietarako auzo-mailan.





- “Koloretako auzoak” izeneko udal-proiektu baten berri eman du; horren arabera, Iruñeko auzoetan lorategiak egingo dira hainbat irudi osatuz. Erripagañaren kasuan, arrano baten irudia egingo da, ustez arranoak bizi baitziren hor garai batean.

Belokik zenbait alditan aipatu du udalen arteko lantalde bat dagoela, eta horretan auzoa osatzen duten lau udaletako ordezkariak parte hartzen dutela (Iruña, Eguesibar, Burlata eta Huarte); horretara, oraingoz, Erripagañako auzo-elkarteko kideak baino ez dira joan, baina zabalik dago auzoko bizitzan parte hartu nahi duen pertsona ororentzat, eta bertaratuak gonbidatu ditu lantaldean parte hartzera.



### Cierre / Amaiera

#### **FLOREN LUQUIREN ETA MAIDER BELOKIREN PARTE-HARTZEA**

Herritarren Partaidetzako teknikariak amaitutzat eman du auzo-eztabaidagunea, eta barkamena eskatu du berandutzeagatik, eta bertaratutako guztiei eskertu die asistentzia-orria bete izana eta eztabaidagunera etorri izana; halaber, gonbidatu ditu hurrengo eztabaidagunera eta udalen arteko lantaldera. Mainer Belokik ere amaitu du, etorri izana eskertuz denei.